

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 2480

*HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2022ko maiatzaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2022-2024 aldirako dirulaguntzetarako deialdia arautzen eta egiten duena.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak atzeman dira Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduan (Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2022-2024 aldirako dirulaguntzetarako deialdia arautzen eta egiten duena). Agindu hori 2022ko maiatzaren 25eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (100. zk.). Honen bidez zuzendu egiten dira:

16.1 artikuluan, 2022/2255 (19/8) orrialdean,

hau dio:

«16.1.– 2. artikulua a), b), c) eta e) apartatuetan aipatzen diren jardueren kasuan:»

Baina hau esan behar du:

«16.1.– 2. artikulua a), b), eta d) apartatuetan aipatzen diren jardueren kasuan:»

16.2 artikuluan, 2022/2255 (19/10) orrialdean,

hau dio:

«16.2.– 2. artikulua d) apartatuan aipatzen diren eta diruz lagundu daitezkeen jardueren kasuan:»

Baina hau esan behar du:

«16.2.– 2. artikulua c) apartatuan aipatzen diren eta diruz lagundu daitezkeen jardueren kasuan:»